

telebista ♦ irratia

Herrialdeetako berri emateari ekingo dio ostera ETB-2k

Eguerdiko 14:15etan hasiko dira Hego Euskal Herriko albisteak jasotzeko konexioak

Erredakzioa / Donostia

**Gaur herrialdeetako informazioa itzuliko da Euskal Telebistara, arratsalde hasieran. Egune-
ro, 14:15etan, Hegoalde-
ko lau herrialdeetan
informazio ezberdinaren
berri emango da ETB-2
katearen bidez. Horrez
gain, ETB-1ean, orain
arte bezala, Iparralde-
aren orena saioa Ipar Eus-
kal Herriko gertaerez
ariko da.**

HEGO EUSKAL HERRIKO herri eta hirien berri zabalduko du ETBk, 40 profesio-
nali esker. Ane Miren de la Hoz izango da programaren
koordinatzailea, eta Isabel Octavio arduratuko da Ara-
bako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako aurkezle
bakoitzarekin konexio zuzena egiteaz. Mikel Saezek
(Araba), Jonan Apaolazak (Bizkaia), Rosa Diezek
(Gipuzkoa) eta Begoña Elizarik (Nafarroa) emango dute
egunean gertatutakoaren berri.

Hirugarren denboraldiari ekingo diote kazetariok; beraz, dagokion herrialde-
tan aditu izateaz gain, aurpegi ezagunak dira ikus-
entzuleentzat, Jonan Apaolaza izan ezik.

Ane Miren de La Hozek



Herrialde bakoitzeko ETBko albistegietako aurkezleak prest dira eguneroko albisteak emateko.

jarraipen lana izango dela azpimarratu du. ETBk herrialdeetako informazioa lantzen izandako eskarmen-
tua lagun izango dute. Bide-
nabar, berrikuntzarik izan-
go dela gaineratu du, herri-
tarrei lekua egingo baitzaie
parte hartze aldera.

Taldearen asmoa, bestal-
de, informazioaren denbora
betetzen duen eguerdiko

espazioa printzipioz txiki-
tzat hartuak direnak baina
berez handiak diren albiste-
ez osatzea da. Herrialdeeta-
ko informazio iturri eman-
kor hori, gainera, koordina-
zio estu eta etengabearen
baitan, *Teleberri* eta *Gaur*
egun saioetara bideratuko
da.

ETBko herrialdeetako
informazioa *Iparraldearen*

orena saioarekin osatuko
da. Guillaume Irigoienek
eta Inma Alvarezen eskutik,
ETB-1ek egunero Nafarroa
Behereko, Lapurdiko eta
Zuberoako berri ematen du,
eguerdiko ordu bat aldera.
Saio horretan, biztanleria
ugariko herrietako albisteen
berri ez ezik, Iparraldeko
herri txikietako gertaerak
ere kontatzen dira.

laburrean

Canal + eta Transglobe Filmsek 'Mundos perdidos' ekoitzi dute

Manuel Novoa, Gerardo Olivares eta Fernando Gonzalez sei hilabetez bost kontinenteetan barrena dabil-
tza mundu galduen bila. Istorio eta kondaira urru-
nen atzetik, natura, arkeo-
logia eta antropologia
nahastuko dituen saio bat
onduko dute: *Mundos Per-
didos*. 2001. urtean estrei-
natuko da, eta ordubeteko
26 atalez osatua egongo da.
Mendebaldeko kultura eta
teknologi joera oldarkorren
eraginik gabeko lurralde
eta herriak ikusi ahal izan-
go dira.

France 3 katean zirkua iluntzeko 20:55ean

Gaur Montecarloko Nazio-
arteko 23. Zirkua Jaialdia
ospatuko da, eta France 3
katean ikusi ahal izango
da, iluntzean.



La2 katea Durrutiri buruzko dokumentala prestatzen ari da

Albert Boadella Els Joglars antzerki taldeko zuzenda-
riak eta Jean Louis Comolli zinemagile frantziarrak
egindako dokumental bat
ikusi ahal izango da *La
noche temática* saioan:
*Buenaventura Durruti,
anarkista*. Dokumentalak
ihes egin nahi du atzera
begirako dokumentu histo-
rikoen topikoetatik. Horre-
tarako, ikus-entzuleari
iraultzailearen bizitza
berregiteko gakoak eta bizi
izandako garaien testu-
guruia ezagutarazten zaio.
Bidenabar, inoiz argitara
eman ez diren albisteez
ikuspegi berria azaltzeko
asmoz egina da.

Telebista digitalak bizitza pribatua inbadituko du

■ Indar ekonomiko indartsuek industria digitala moldatu nahian dabilta

Efe / Washington

ESTATU BATUETAKO kontsumitzaile federazioaren iritziz, telebista digitalak bizitza pribatua inbadituko du. Gainera, kontsumitzaile-
leen artean alde humanoak,
sozialak eta ekonomikoak
areagotuko ditu.

Atzo amaitu zen, hain
zuzen ere, EEBBetan tele-
bistek sistema digitalarekin

emititzen hasteko zuten
epea. Telebista digitalak
imajinen kalitatea hobetzen
badu ere, oso ekipo gares-
tien beharra dakar.

Iragartzaileek telebista
nork ikusten duen jakingo
dute, baita erosketak nork
egiten dituen ere; telebista-
ren ezaugarri interaktiboak
eragina izango du informa-
zio pertsonalean eta eroske-
ta aktibitateetan.



LEIRE ARZUAGA

Telebista digitalak ekar ditzakeen arriskuez eztabaidatu dute azken egunetan EEBBetan.